

Baikorrak izan behar dugu?

Kontatuko dizuedana ez diot inori esan sekula: “Alaba erditzen ari nintzenean, medikuak nire eskua hartu eta bere hankartera hurbildu zuen. Zakila tente zeukan”.

Zirkuluan eserita gauden hogeit hamar emakume txundituta geratu gara. Andrak 70 urte inguru izango ditu. Kataluniako herri batean nago, internetekin lotutako sexu indarkeria eta jazarpen egoeren aurrean beldurraren ordeztan jabekuntza sustatzeko beharrari buruz hitz egiten. Emakume taldea askotarikoa da, hiru belaunalditakoa (gazteenek hamabost urte dituzte). Konfiantza giro hunkigarria sortu da.

60 urte inguruko emakume batek kontatu du gazteago zenean bere lankide batek bera bortxatzeko saiakera egin zuela. Ondoren, 30 urteko bere alabak esan du berak ere sexu eraso bat gerditzea lortu zuela; auzoko bat izan zen erasotzailea.

“Ez ezazu ezezagunekin txateatu” bezalako aholkuek arriskua kanpoan kokatzen dute. Jack Destripatzailearen garaietatik, kaletik dabilen ezezagun krudel baten mamuarekin bizi gara emakumeak. Munstro hori saihesteko, gure autonomia eta askatasuna –sexu askatasuna bereziki– mugatu behar ditugu. Baina, egun jakin badakigu eraso sexista gehienak ezezagunek eragiten dituztela. Ezagunak direnean, zailagoa da indarkeria hau onartzea eta salatztea: gizonak boterea edo ospe ona duelako, horregatik sinetsiko ez gaituztelako, herrian gatazka bat piztuko dugulako, berarekin maiz topo egingo dugulako.

Auzokoa, lankidea, amorantea, senarra, medikua (!), apaiza. Apaiza behin baino gehiagotan aipatu dute adineko andreek solasaldi honetan. “Tira, garai horretan nik ez nekien apaizaren magalean esertzea eta bere ukitu lizunak pairatzea sexu gehiegikeria zenik”.



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Granollerseko diskoteka bateko komunetan, bi mutilek neska bat bortxatu zuten. Sare sozialetan jende askok neskari egotzi zion errua. Neska dantzan zebilela gizon batekin zein emakume batekin musukatzen hasi omen zen. Bere sexu askatasuna adierazteagatik bortxatu zuten, alegia. Ez harritu epaiketan defentsak argudio hori erabiltzen badu. Gogoratu Nagore Laffageren hilketaren epaiketa

Solasaldian eztabaida piztu zen: baikorrak izateko arrazoiak ditugu? Nahiz eta emakume izateagatik gizon ezezagunekin ikara sentitu, nahiz eta emakume izateagatik ezezagunen erasoei aurre egin. Baikorrak izan behar dugu isiltasun hori urratu delako, urratu dugulako?

Baina albiste kezkarri bat ere kontatu dute: orain dela hilabete bat, Granollerseko diskoteka bateko komunetan, bi mutilek neska bat bortxatu zuten. Sare sozialetan jende askok neskari errua egotzi zion. Neska dantzan zebilela gizon batekin zein emakume batekin musukatzen hasi omen zen. Bere sexu askatasuna adierazteagatik bortxatu zuten, alegia. Ez harritu epaiketan defentsak argudio hori erabiltzen badu. Gogoratu Nagore Laffageren hilketaren epaiketa.

Emagalduta izateagatik eraso probokatu zuen. Hankak irekita erditzen gaudenean ere ginekologoa probokatzen omen dugu. Umeak garenean dagoeneko probokatzaileak gara eta gehiegikeriak desio ditugu. Tenerifeko apezpikuak 2007an eta Limako kardinalak 2016an halakoak esan dituzte. Ebaren jatorrizko bekatuaren zama daramagu.

Baina gaur egun halako jarrera, eraso eta zurrumurruetan matxismoa eta indarkeria identifikatzen ditugu. Sare sozialetan eta hedabideetan sexu onepenari buruzko eztabaida piztu da. *Ezetz ezetz da* leloa nonahi irakur dezakegu. Pasa den Sanferminetan emakume bat bortxatu zuen gizon taldearentzat hogeita bi urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Alabaina, *La Manadak* jarraitzaileen laudorioak jaso ditu interneten eta futbol zelaietan.

Hiru belaunaldik bizitako indarkerien memoria piztu dugu, baina ez gara biktima sentitzen. Isiltasuna, lotsa eta beldurrak astindu ditugu elkarrekin. Eskerrak horri buruz hitz egiten dugula gaur egun. ■